

DEBA GARAICO UDAL ELKARTEA

IRAGARPENA, X. EFALEBAE delakoan jasotzen diren akordioei Langilegoaren Arautegi izateko indarra ematen dien eta Deba Garaiko Udal Elkarteak hartutako erabakiari buruzkoa. 9793

UREN PARTZUERGOA, HORNIDURA ETA OSASUNBIDEA

INFORMAZIO PUBLIKOA, «Saneamiento de Arrigunaga, desglosado de Interceptor del Gobelas, tramo Berango-Fadura» izeneko Proiektuari buruzkoa eta hori egiteak hartzen dituen ondasun eta eskubideen zerrenda Jendaurrean Jartzeari buruzkoa. 9793

BATXILERGOKO ALTZAKO INSTITUTU MISTOA

IRAGARPENA, Monika González Mojón Andreak BBBko Titulua galdu duenaren berri ematen duena. 9796

MANCOMUNIDAD DEL ALTO DEBA

ANUNCIO relativo al acuerdo de la Mancomunidad del Alto Deba por el que se otorga eficacia como Reglamento del Personal a los acuerdos contenidos en el X. ARCEPAFE. 9793

CONSORCIO DE AGUAS, ABASTECIMIENTO Y SANEAMIENTO

INFORMACION PUBLICA del Proyecto «Saneamiento de Arrigunaga, desglosado del Interceptor del Gobelas, tramo Berango-Fadura», y Exposición al Público de la relación de bienes y derechos afectados por su ejecución. 9793

INSTITUTO MIXTO DE BACHILLERATO DE ALZA

ANUNCIO por el que se hace pública la pérdida del Título de B.U.P. de Mónica González Mojón. 9796

**Euskal Autonomi Elkarteko Xedapen Orokorrak
Disposiciones Generales del País Vasco**

**LEHENDAKARITZA, ZUZENTZA
ETA AUTONOMI GARAPENERAKO SAILA**

3147

264/1990 DEKRETUA, urriaren 9koa, lanpostuei izendatutako hizkuntza eskakizunen derrigorrezkotasuna zehazteko erizpideak finkatzen dituena.

Euskal Autonomi Elkarteko Herri-Administrazioetan Euskararen Erabilera Normaltzeko Plangintza arautzen duen urriaren 17ko 224/1989 Dekretuak, derrigortasun-egunak eta administrazio-atal eta kate elebidunak zehazteko prozedura finkatu zituen bere III. Atalburuan.

Hizkuntza Normalkuntzaren prozedura, bai orokorrean hartuta eta bai bere aldietako bakoitzerako arauteri zehatza ezartzerakoan, objetiboa eta lege arloan ziurra izan behar dela begi bistakoa denez, beharrezkoa da 224/1989 Dekretua osatzea, zenbait plaza dituen lanpostu baten barnean, Hizkuntza Eskakizuna izendatuta dutenen artean zein plaza zehatz(e)i derrigorkotasuna ezarri behar zaion (zaien) zehazteko lagunduko duten erizpideak finkatzeko.

Ondorioz, Lehendakaritza, Zuzentza eta Autonomi Garapenerako Sailburuaren proposamenez eta 1990.eko urriaren 9an egindako bilkuran Jaurlaritzaren Kontseiluak aztertu ondoren, honako hau

XEDATU DUT:

1. atala.— Euskal Administrazio Publikoetan dagoen edozein lanpostuk zenbait plaza baditu, plaza horiei hizkuntza eskakizunaren derrigortasuna ezartzeko, horietako bakoitzean gara daitezen iharduera edo eginkizunen arloan arabera egingo da, administrazio-atal edo kate elebidun baten barnean aurkitzen diren dotazioek lehentasuna izango dutelarik, urriaren 17ko 224/1989 Dekreturen 15. atalean aipatzen den moduan.

**DEPARTAMENTO LE PRESIDENCIA, JUSTICIA
Y DESARROLLO AUTONOMICO**

3147

DECRETO 264/1990, de 9 de octubre, por el que se establecen criterios para la determinación de la preceptividad a los perfiles lingüísticos asignados a los puestos de trabajo.

El Decreto 224/1989, de 17 de Octubre, por el que se regula la planificación de la normalización del uso del Euskera en las Administraciones Públicas de la Comunidad Autónoma Vasca, estableció, en su Capítulo III, el procedimiento para la determinación de las fechas de preceptividad y de las unidades y circuitos administrativos bilingües.

Siendo evidente la necesidad de que el procedimiento de Normalización Lingüística en su conjunto y, mediante la regulación precisa de cada una de sus fases, goce de objetividad y seguridad jurídica, se hace preciso complementar el Decreto 224/1989, en orden a fijar los criterios que coadyuven a la determinación, dentro de un puesto de trabajo con pluralidad de dotaciones, las concretas plazas sobre las que deba recaer la preceptividad del Perfil Lingüístico que tuvieran asignado.

En su virtud, a propuesta del Consejero de Presidencia, Justicia y Desarrollo Autonómico, y previa deliberación del Consejo de Gobierno en su sesión celebrada el día 9 de octubre de 1990,

DISPONGO:

Artículo 1.— La atribución de preceptividad del perfil lingüístico a las diferentes dotaciones de un puesto de trabajo existentes en las Administraciones Públicas Vascas, se realizará en función de las áreas de actividad o tareas que desarrollen cada una de ellas, teniendo prioridad aquellas dotaciones que se encuentren dentro de un circuito o unidad administrativa bilingüe, tal como señala el art. 15 del Decreto 224/1989 de 17 de Octubre.

2. *atala.*— Dotazio bat baino gehiago dituzten lanpostuak daudenean eta, bakotzari dagokion derrigortasuna finkatzeko, iharduera edo eginkizunen arloak berezitu ezin direnean, era horietan ekingo zaio:

a.— Lehenengo eta behin, dotazio bat baino gehiago duen lanpostu baten barnean, euskararen ezagutza ezinbesteko beharkizuna izan den hautaketa edo horniketa prozesuaren ondorioz titularrek lortu dituzten plaza horientzat finkatuko da derrigortasuna.

b.— Bigarren aldi, eta lanpostu bat betetzen duten dotazioen artean hutsik daudenak badaude, dotazio horiengan ezarriko da derrigortasuna.

c.— Aurreko idaztietan esandako moduan ezin bada derrigortasuna ezarri, jarraian zerrendatzen diren erizpideen arabera ihardun beharko da:

c.1.— Lehenengo eta behin, lanpostuari izendatutako hizkuntza eskakizunaren arabera euskararen ezagutza mailarik onena duten titularren dotazioei finkatuko zaizkie derrigortasuna.

c.2.— Eragindako titularrek duten euskararen ezagutza maila berdina bada, adinaren arabera egingo da derrigortasunaren ezarpena. Plangintzaren aldia hasterakoan, eragindako lanpostu zehatzeko plaza edo dotazioetako titularrek izan dezaten adinaren arabera izango da, adinez gazteena den titularrari dagokion dotazioari ezarriko zaizkio. Erizpide hau ezarri ahal izateko, adinen arteko desberdintasuna gutxienez bost urtetik gorakoa izango da.

c.3.— Aurreko erizpideak nahiko ez badira, lanpostua burutze lanetan aintzinasunik gutxien duten titularren dotazioengan ezarriko da derrigortasuna.

3. *atala.*— Aurreko atalean xedatutakoa horrela izan arren, beste edozein erizpideren gainera lehenetasuna izango du, dotazio bat baino gehiago dituen lanpostu bateko plaza zehatz baten titularrak berak betetzen duen dotazioari derrigortasuna ezartzea eskatzen bada.

GEHIGARRIZKO XEDAPENA

1.— Edozein Sail edo Zuzendaritza Zentrun lanpostu batek berak bi dotazio edo gehiago dituenen, banan-banan adierazita agertuko dira lanpostuen zerrendetan horiek, bakoitzari izendatutako hizkuntza eskakizuna eta, horrela denetan, derrigortasun-eguna adierazita.

2.— Aurreko idaztietan oharmandako kasuetarako, hizkuntza eskakizunen lehenengo inkorporazioa egin dadin lanpostuen zerrendetan, hizkuntza eskakizunaren derrigortasun-eguna ezarri zaien banan-banan egindako dotazio bakoitzaren titularraren izena edo, kasua beste hau bada, hutsik daudela agertuko da; argibide hauek esandako zerrendetako Eraskin lez aterako dira eta identifikatu ahal izateko balio dezaten izango dira bakarrik.

Vitoria-Gasteiz, 1990.eko urriak 9.

Lehendakaria,

JOSE ANTONIO ARDANZA GARRO.

Lehendakaritza, Zuzentza

eta Autonomi Garapenerako Sailburua,

JUAN RAMON GUEVARA SALETA.

Artículo 2.— Siempre que existan puestos de trabajo con más de una dotación y no fuera posible diferenciar áreas de actuación o tareas a fin de atribuir la preceptividad que corresponda, se procederá de la siguiente forma:

a.— Se optará por fijar la preceptividad, en primer lugar, y, dentro de un puesto de trabajo con pluralidad de dotaciones, en aquellas plazas cuyos titulares hayan accedido a las mismas como consecuencia de un proceso de selección o provisión dentro del cual el conocimiento del euskera hubiere sido considerado requisito obligatorio.

b.— En segundo lugar y, caso de que dentro de las dotaciones que integran un puesto de trabajo existan vacantes, la preceptividad deberá recaer en tales dotaciones.

c.— Si no fuera posible atribuir la preceptividad conforme a los apartados anteriores deberá actuarse conforme a los criterios que a continuación se relacionan:

c.1.— Se establecerá la preceptividad, en primer término, en aquellas dotaciones cuyos titulares tengan mayor nivel de conocimientos de euskera en relación al perfil lingüístico asignado al puesto.

c.2.— Caso de que el nivel de conocimientos de euskera de los titulares afectados fuera el mismo, la atribución de la preceptividad se realizará en razón de la edad que, al inicio del período de planificación, tengan los titulares de las plazas o dotaciones del concreto puesto de trabajo afectado, fijándose ésta a aquella dotación cuyo titular posea menor edad. Este criterio se aplicará siempre y cuando la diferencia de las edades en consideración sea superior a cinco años.

c.3.— Si los criterios anteriores resultaren insuficientes, se hará recaer la preceptividad sobre aquellas dotaciones cuyos titulares tengan menor antigüedad en el desempeño del puesto de trabajo.

Artículo 3.— No obstante lo dispuesto en el artículo anterior, tendrá consideración de carácter prioritario sobre cualquier otro criterio la solicitud del titular de una plaza determinada de un puesto de trabajo con pluralidad de dotaciones en el sentido de que sea la dotación que él ocupa aquella en la que se fije la preceptividad.

DISPOSICION ADICIONAL

1.— Cuando en un Departamento o Centro Directivo existan dos o más dotaciones de un mismo puesto de trabajo, éstas se reflejarán de forma individualizada en las relaciones de puestos de trabajo, expresando el perfil lingüístico que cada una de ellas tenga asignado y, en su caso, su fecha de preceptividad.

2.— En el supuesto previsto en el párrafo anterior, las relaciones de puestos de trabajo, en las que se produzca la primera incorporación de los perfiles lingüísticos, expresarán como Anexo a las mismas y a los solos efectos de su identificación, el titular de cada una de las dotaciones individualizadas a las que hayan sido asignadas fecha de preceptividad del perfil lingüístico o, en su caso, su condición de vacantes.

Vitoria-Gasteiz, a 9 de octubre de 1990.

El Lehendakari,

JOSE ANTONIO ARDANZA GARRO.

El Consejero de Presidencia, Justicia
y Desarrollo Autonomico,

JUAN RAMON GUEVARA SALETA.